





### BEGITHARTE HORIEK :

- Ⓢ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.  
Ⓣ " " Argizagi azken laordena.  
Ⓤ " " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.  
Ⓦ " " Argizagi lehen laordena.
- 

### OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthaila* 11<sup>an</sup>; — HAOSTE, *baranthailako* 28<sup>an</sup>; — BAZKO, *jorrailako* 15<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 21<sup>an</sup>, 22<sup>an</sup> eta 23<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 24<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE, *arramaiazeko* 3<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiazeko*, 14<sup>an</sup>; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentu* 2<sup>an</sup>.

---

### LAOR THENPORAK :

Martchoko 7 <sup>n</sup> , 9 <sup>n</sup> eta 10 <sup>n</sup> .	}	Buruilako 19 <sup>n</sup> , 21 <sup>n</sup> eta 22 <sup>n</sup> .
Arramaiazeko 6 <sup>n</sup> , 8 <sup>n</sup> eta 9 <sup>n</sup> .		Abentuko 19 <sup>n</sup> , 21 <sup>n</sup> eta 22 <sup>n</sup> .

---


### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhuntze osoa, maiatze 28<sup>an</sup>; pharte ikhousiren da Uskal Herrian, goizanko 3 oren eta bosten artian. — Argizagi ulhuntze phartezkoa, arramaiatze 12<sup>an</sup>; ikhousiren da Uskal Herrian eta irañen gaiko oren bakhoitz eta erditik goizanko bostak eta erditara drano. — Ekhi ulhuntze phartezkobat azaro 21<sup>an</sup>. ikhousiren eztieta Uskal Herrian.





## JERRAN ZAHAR



Berant jina, gaizki etzana.  
Bere nahiz eri denari, nourk bilha dezakeio osagarri?  
Bere hounak ez dutiana urrikari, gomenda bedi ourthe gaitzari.  
Besteren buruko zorria dakousa (ikhousten du), eta ez bere lephoko  
Beso minduna bouharrian, zankho eria ohatzian. [cherria.

Bethi zerbutchari loiala eta pherestia  
Hartzedun da, bad'ere phakatia.

Bide luzian, lastoa ere sortha (karga) sougnian.  
Bihia peitu den etcheke, gaiza guziak dira saltzeko.  
Bihotzaren behargile mihia.  
Bi jaberen horak janharria gora.

Bizi hadi ountsa hounarekin,  
Eta ehadila albarota gaichtoarekin.

Bortchaz barourzale, eztiana zer jan.

Buria gourhiz dianari  
Eztagoka izaitia labekari

Burutik hasten da arragna karatzen.

Desditchatiak eztu adichkiderik  
Bere mousaz besterik.

Dutian hountarzunegatik  
Ounhetsak adichkidia,  
Eta ez eitz opho gutigatik  
Zeren beitu nourk beria.

Ditchak : Bilha nezatela, ziotsak.


Ditcha dianak, alga eta abere;  
Eztianak, ez lasto ere.

Ditchak bi aorhide : houn eta adichkide;  
Desditchak haboro : gaitzak oro.






## HANITCH KHASU HOUNI



**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., hora ourthe oroz behar da begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount.



## LIBRU BERRI USKARAZ



# USKAL NOELEN LILIA

*Hounturik Jesusen Inkarnaziõniaren ouhouretan*

Eta orai harzara Uskaldunbatek ahaire  
Zaharrekin arra mouldaerazirik




*PARISEN*

15, STANISLAS KARRIKAN, 15



*Prezioa : BOST SOS*





## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.

\*\*\*


- ⊙ a. b. 1<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup>.
- ⊕ l. l. 7<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 49<sup>min</sup>.
- ⊖ a. o. 15<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 17<sup>min</sup>.
- ⊗ a. l. 23<sup>n</sup>, eguerdi eta 2<sup>min</sup>.
- ⊙ a. b. 30<sup>n</sup>, arrastiriko oren eterdan.

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.

\*\*\*

- ⊕ l. l. 6<sup>n</sup>, goizanko 4 or eterdan.
- ⊖ a. o. 14<sup>n</sup>, goizanko 2 orenetan.
- ⊗ a. l. 22<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 53<sup>m</sup>.
- ⊙ a. b. 28<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 34<sup>m</sup>.



1 Astelehen.	ZIRKONZISION	1 Ostegun.	s. Iñazio.
2 Asteharte.	s. Makari.	2 Ostirale.	KHANDERALLU
3 Astizken.	sa Jenevieva.	3 Neskanegun.	s. Blasi.
4 Ostegun.	s. Rigobert.	4 <b>Igante.</b> 5.	sa Jana, Val.
5 Ostirale.	sa Amelia.	5 Astelehen.	sa Agata.
6 Neskanegun.	APHARIZIO.	6 Asteharte.	sa Dorotea.
7 <b>Igante.</b> 1.	sa <i>Melania.</i>	7 Astizken.	s. Romual.
8 Astelehen.	s. Luzien.	8 Ostegun.	s. Johane Mat.
9 Asteharte.	s. Julien.	9 Ostirale.	sa Apolina.
10 Astizken.	s. Gillen.	10 Neskanegun.	sa Eskolaztika.
11 Ostegun.	s. Teodose.	11 <b>Igante.</b>	<i>Zetuajezimo.</i>
12 Ostirale.	sa Taziena.	12 Astelehen.	A. B. Lourdako.
13 Neskanegun.	J. K. Batheia.	13 Asteharte.	s. Jilbert.
14 <b>Igante.</b> 2.	s. <i>Hilera.</i>	14 Astizken.	s. Faosti.
15 Astelehen.	s. Phaole, erm.	15 Ostegun.	s. Marzel.
16 Asteharte.	s. Marzel.	16 Ostirale.	s. Hiji.
17 Astizken.	s. Antoni.	17 Neskanegun.	s. Onesimo.
18 Ostegun.	J. Phetir. Err. Jartia	18 <b>Igante.</b>	<i>Zetsajezimo.</i>
19 Ostirale.	s. Kanut.	19 Astelehen.	s. Silveñ.
20 Neskanegun.	s. Fabien.	20 Asteharte.	s. Elutero.
21 <b>Igante.</b> 3.	sa <i>Agnes.</i>	21 Astizken.	s. Eucher.
22 Astelehen.	s. Bizente.	22 Ostegun.	J. Petir. Ant. Jart.
23 Asteharte.	A. B. Ezkontz.	23 Ostirale.	s. Petiri Dam.
24 Astizken.	s. Timote.	24 Neskanegun.	J. MATHIAS, ap.
25 Ostegun.	J. Phaoler kon.	25 <b>Igante.</b>	<i>Kinkajezimo.</i>
26 Ostirale.	s. Polikarpe.	26 Astelehen.	s. Romano.
27 Neskanegun.	sa Anjelika.	27 Asteharte.	sa Onorina.
28 <b>Igante.</b> 4.	s. <i>Zirile.</i>	28 Astizken.	HAOSTE.
29 Astelehen.	s. Frantzes S.		
30 Asteharte.	sa Martina.		
31 Astizken.	s. Petiri Nol.		



MARTEGOA edo OSTAROA


Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☽ l. l. 7<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 44<sup>min</sup>.
- ☿ a. o. 15<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 21<sup>m</sup>.
- ♁ a. l. 23<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 46<sup>m</sup>.
- ♁ a. b. 30<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 40<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.




- ☽ l. l. 6<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.
- ☿ a. o. 14<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 11<sup>m</sup>.
- ♁ a. l. 22<sup>n</sup>, gaiko 2<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.
- ♁ a. b. 28<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eterdan.



- |                           |                                  |
|---------------------------|----------------------------------|
| 1 Ostegun.                | s. Leon, Baion.                  |
| 2 Ostirale.               | Elhorr. Khor.                    |
| 3 Neskanegun.             | s <sup>a</sup> Kunegonda.        |
| 4 <b>Igante.</b>          | <i>Gorozumako 1<sup>a</sup>.</i> |
| 5 Astelehen.              | s. Kamille.                      |
| 6 Asteharte.              | s <sup>a</sup> Koleta.           |
| 7 Astiz. <i>IV Th. B.</i> | s. Tomas Akin.                   |
| 8 Ostegun.                | s. Johane J.                     |
| 9 Ostir. <i>IV Th. B.</i> | s <sup>a</sup> Frantzesa.        |
| 10 Nesk. <i>IV Th. B.</i> | 40 Martirak.                     |
| 11 <b>Igante.</b>         | <i>Gorozumako 2<sup>a</sup>.</i> |
| 12 Astelehen.             | s. Gregori I.                    |
| 13 Asteharte.             | s <sup>a</sup> Ufrazia.          |
| 14 Astizken.              | s <sup>a</sup> Matilda.          |
| 15 Ostegun.               | s. Zakaria.                      |
| 16 Ostirale.              | <i>J. Ken Suario Sia</i>         |
| 17 Neskanegun.            | s. Patrik.                       |
| 18 <b>Igante.</b>         | <i>Gorozumako.</i>               |
| 19 Astelehen.             | s. JUSEF.                        |
| 20 Asteharte.             | J. Gabriel, ark.                 |
| 21 Astizken.              | s. Benedic.                      |
| 22 Ostegun.               | s <sup>a</sup> Kiktruda.         |
| 23 Ostirale.              | <i>J. K. Zaori Sak.</i>          |
| 24 Neskanegun.            | s. Simoun.                       |
| 25 <b>Igante.</b>         | <i>Gorozumako 4<sup>a</sup>.</i> |
| 26 Astelehen.             | s. Robert.                       |
| 27 Asteharte.             | s. Johane Dam.                   |
| 28 Astizken.              | s. Justeñ.                       |
| 29 Ostegun.               | s. Pastor.                       |
| 30 Ostirale.              | <i>J. K. Odol Prez.</i>          |
| 31 Neskanegun.            | s. Benjameñ.                     |

- |                      |                          |
|----------------------|--------------------------|
| 1 <b>Igante.</b>     | PASIONIA.                |
| 2 Astelehen.         | s. Frantzes.             |
| 3 Asteharte.         | s. Richart.              |
| 4 Astizken.          | s. Ambrosi.              |
| 5 Ostegun.           | s. Bizente Ferr.         |
| 6 Ostirale.          | <i>A. B. Dolor.</i>      |
| 7 Neskanegun.        | s. Herman.               |
| 8 <b>Igante.</b>     | ERRAMU.                  |
| 9 Astelehen.         | s. Akazio.               |
| 10 Asteharte.        | s. Makari.               |
| 11 Astizken.         | s. Leon hand             |
| 12 Ostegun.          | <i>Osleg. Saintu.</i>    |
| 13 Ostirale.         | <i>Ostir. Saintu.</i>    |
| 14 Neskanegun        | <i>Nesk. Saintu.</i>     |
| 15 <b>Igante.</b>    | BAZKO.                   |
| 16 Astelehen.        | s <sup>a</sup> Grazi.    |
| 17 Asteharte.        | s. Anizet.               |
| 18 Astizken.         | s. Elutero.              |
| 19 Ostegun.          | s. Leon IX.              |
| 20 Ostirale.         | s. Teotimo.              |
| 21 Neskanegun.       | s. Anzelmo.              |
| 22 <b>Igante. 1.</b> | s. Soter eta Kaio.       |
| 23 Astelehen.        | s. Jorje.                |
| 24 Asteharte.        | s. Zerazi.               |
| 25 Astizken.         | J. MARK, Eb.             |
| 26 Ostegun.          | s. Klet.                 |
| 27 Ostirale.         | s. Antimo.               |
| 28 Neskanegun.       | J. Phaole, K.            |
| 29 <b>Igante. 2.</b> | s. <i>Petiri, m.</i>     |
| 30 Astelehen.        | s <sup>a</sup> Katalina. |



## DONA ISIDORO, LABORARIA



**D**ONA Isidorosorthu zen Madrillan, bere esku-  
lanetik bizi ziren aita eta ama elibatetarik.  
Etzeien ait'amek den gutieneko eskolarik  
eman, egunian egunekoa doidoia irabazten  
zielakoz, eta denbora hartan ezpeitzutien igorten esko-  
letara aphezgei eta zerbait izkiribu ofiziotara heltu  
behar zirenak baizik. Bena bere aholku eta erakous-  
pen hounez sar erazi zutien haorraren bihotzian Jin-  
koaren beldurra eta amorioa ; Ezpiritu Sainiak gañe-  
lakoa egin zian : holaz bazian munduko naousietarik  
ikhasi zukian beno haboro.

Gazte zelarik etchekoek ezari zien mithil jaon baten  
etchaltian lur lanetan aritzeko ; berantchago, eskoun-  
tzeko adineratu zenian, hartu zian laguntako, mundiak  
gudiziatzen dutian hountarzunez berak bezain guti,  
aldiz Jinkoaren begietan handi edukiten gutienez,  
berak bezainbeste zian emaztebat. Libru Sainietan  
Zuhurrak deitzen dutu halako emaztiak, azkarrak, eta  
dio, zelian hanitch birjina beno gorago diratekiala.

Jinko hounak ounhetsi zian haien batarzuna ; halere  
nahi ukhen zian ikhertu haien berthutiaren indarra.  
Ahalik hobekiena eraikiten zien harek eman haorra  
erori zaien phutzu barna batetara eta han itho. Ordian  
biek bere othoitze eta nigarrez galtheigten die Jin-  
koari ez dizeien hain laster eroan bere hountarzunaz  
eman deien haorra. Hain sarri hour gañiala agertzen  
da arraphizturik ; hora bera ere hantzen da aitamen  
eskietara hel erasteko gisan.

Ouste izateko da horregatik zirela, eta Jinkoaren hobeki maithatzeko, bizi ondar guzian algarrekin anaie arreba bezala bizitzeko gogoan sarthu.

Laborari saintiaren orduz gerozko bizitzia ikhousgarri izanen da. Nahiz phorrokatia dadukan khorpitzalur lanetan, ezteio halere phaosu osorik emanen gaiaz. Ezi Jesus Jaonaren amourio ezin gorthagoak zer nahi penitentzia egin erazten zeion.

Igante eta besta egunetzaz elizako ofizioer chuchen jarraikitzen zen, nahiz orai beno ountsaz luziago ziren, eta hen artetik ari zen Jinkoarekin elhe amoriotsienez mintzatzen. Astegunetzaz jeikiko da goiz goizetik, nahiz gaia osorik kasik othoitzian eroan dukian, eta haren lehen urhatsak elizetara buruz eginik dirate Holaz louari idokiz bere bihotzak Jinkoarentako galthatzen zeion denbora, han zen chuchen bere lanian hasteko thenoria heltu zeneko.

Halarik ere, bere laborari lagunek salhatu zien bere egitekoer beno hobeki jarraikitzen zela othoitzari. Naousiak, bere gogoareki, behar ziala bere begiez ikhousi eia erran zerena egia zenez, egun batez jarri zen esponda baten gañetik Isidrori soz, bera ez ikhousirik izateko gisan. Bena hao dela gaiza espantagarria, ikhouston dutu, bere mithilaren saihetsetan ezagutzen ez dutian bi gizon. Agertzen da ordian eta galthatzen dero Isidrori nour diren lagun hourak zounbat ere ehi ageri beita zelutiarrak direla. Jakiten du Jinkoak laguntzia gatik bere mithilari igorten deitzen bi ainguru direla. Hortakoz eitzi zian ichilik, eta bere bizitziaz deus aiphatu gabe. Jinkoak hain maite zianari zer erran zaitekian? Hobeki egin zian; beitzutian etchen miskandi saldobat, haien aintzindari ezari zian. Bere oustez Jinko hounaren beneditzioniak gisa horrez eraitchi behar ziren bere etchaltiaren gana. Eta hala fountsian agitu zen.

Behin hil beitzeron balia handitako zaldibat Isidorok arraphitzerazi zeron bere othoitzez. Beste aldi-

batez, naousiari hiltzen zaio ezinago maite zian alhababat : Isidoro orano Jinkoari othoiez ari da eta jardiesten haor houra berriz bizi dadin. Beste behin, lanian ari zelarik etchaltetik hurrun, naousia ikhous-tera jinek bere unguruttoa egiten zialarik, egarri handibat jaoki zeron naousi horri, eta etzen nihoun ere bazter haietan hourik. Isidorok orano Jinkoa othoitu, eta jo zian lurra bere phertikaz. Hain sarri sortu zen jo zian gune berian uthurburu geroztik egundano agortu eztena.

Bestaldibatez orano arthaldiaren zaintzen ari zelarik otsobatek eroan zeron bildotsbat ; horren ikhous-tiari ezta den lekhotik igitzen, bena berbera Jinkoari hersatzen da eta bat batetan otsoa hil gogor erorten da, bizirik baratzen delarik ezbaian itho zian bildotsa.

Erran dugu jadanik goure saintia etzela aberats ; halere lagungoa hanitch egiten zeien errumes eta esteiarier ; nouiz nahi beretako ukheiten ziana erdizkatzen zian praobekin edo hobeki erraiteko, haien soberakinetarik baizik etzen bizi.

Aldibatez, zian guzia emanik, agertu zaion orano praobebat, zerbaiten eske. Manhatzen deio lagunari joan dadin hutchala sogitera baratzen othe denez deusere emaiteko houn denik. Bazakian ountsa emaztiak hutsik zela ountzia, badoua halere senharrak manhaturik delakoz, eta hao dela noun jatekoz bethe bethia edireiten dian. Jinko hounak mirakullu hori egin zian, senhar emazte haiek protsimoaren zien amorioa saris-tatzia gatik.

Ordu hetan ere aorhidegoek egiten ohi zien algarreki, elizako urhatsetarik landan, zerbait apairu. Isidoro entako besta guzia elizan zela ehi sinhesteko da. Behin gogoa othoitzari emanik ouste gabian egon zen berantto elizan eta nouizpaizt baizik etzen heltu apairia emaiten zien lekhiara. Hara heltzian, errumes edo praobe oztebatez unguraturik edireiten du etchia. Sartzen da haiekin, eta behatu gabe zeren gatik jente


theiu eta philda tcharrian ziren hourak oro sar erazi tian, eta zerengatik hain berant jin den galthoz ari zeitzonez, hartzen du eskietan begiratu deien janhari phartia, eta lehen praobe heltiari emaiten dero. Halere baratzen zaio bigerrenarentako, bai eta hari eman oundoan, hirourgerrenarentako, eta beste ororen ere ; eta Jinkoak hala emendatu dialakoz pharthe bakhoitz hora, errumesekin egiten du lehen mahaintarakoena bezañ houn zen apairubat.

Hoietarik orotarik ezagun zen arima eder hora houn zela zeluko. Urhats saintu hoietan eta Birjina dona Mariaren ouhouratzen zahartu ondouan, hil zen maiatze hamabostian, bizitzia uduri zen heriotziaz. Laster hedatu zen Madrillan eta España orotan haren eretzerako debozionia. Geroztik munduko laborari khiristiek haitatu die bere patrou eta begirari berhezi bezala.

*Ekhoizpena* : Munduko lankhietan egonez dona Isidoro bezala, zoure arimaren salbamentia egin behar duzun laborari edo langilia, eduk itzatzu zoure bihotzian Jinkoaren beldurra, eta ez izana gatik ez jakitate ez hountarzun handirik, zer merechimentuzko duhulak ez dutuzu zelialako biltzen zoure nekezia eta izerdien bidez ! Gogo emazu horri, zoure egunaldi ulhun eta atsekabiak jorik direnetan.



## USKARA ETA USKALDUNAK



**J**OAN den ourtheko armanakian mintzatu niz uskara eta Uskal Herriaz, eta bai goure mintzoan, bai goure herrian, geroago eta handiago jiten diren khanbioez. Dugun ikhous zerk gehienik galarazten dian uskara eta zer egin behar den begiratzeko.

Aithortu beharda gihaorek dugula, Uskaldunek,

galzen goure mintzo ederra edo galzera eizten. Arrotzak ari zaizku orotan emeki emeki naousitzen. Uskalduna ezta sarri ez bere lurren, ez bere haorren, ez eta ere hanitchetan, bere buriaren jabe Uskal Herrian. Goure bidiak, etchiak, bazterrak oro, bizardun, kasketak dun, nourk daki nour, eta zer, nourk daki nountik hounat sorthu elibatez bethiak dutugu.

Zoaza Santa Grazira, zoaza Laphourdi zolala, Hendaiara : eztitakezu urhats biga egin jaon eta andere frantchimant zounbaiteki buruz burutu gabe. Eta eniz mintzo biarnesez : ezta chokhobat den tchipiena Uskal Herri guzian noun ezten ofiziale eta tratulantbat gaskou edo biarnes, ezpadira ere zouñ eretzetan laborantzako etchaltebategaz jabeturik.

Bai, erraiten ahaldugu : ohiko beste asko gaiza houn eta ederrekin badoa, galtzera doua Uskalduntarazuna. Bena ezta deusetarik hobeki ageri, noula agertzen beita mintzoaren gora beheratik.

Batek erri, bestek belzouri eginen die menturaz hounen irakourtziari : Zer erasten duzu hor erranen deikie ere beste zounbaitek ? Uskara galtzera douela ? Eztuzia ikhouston uskara eztela izan behin ere azkarago eta garbiago ? Holako elhiak zozo elhiak direla ehi da ikhoustia.

Ezin ukhatuzko egia da arren ; utsu izan behar da, ez ikhousteko noula eta zounbat burutarik galtzen ari den uskara. Sogizie zer agitzen den Uskal Herriko mugetan diren herrietan, ala Gaskouñako aldian, ala Biarnokoan. Herri haietan uskaldun haboroek emaiten badakie aizo arrotzen mintzoa : ezkontzez ala bestela sar dadila arrotz bat etchalte uskaldunbatetan, etchalte haietako uskal mintzoa chahu galduko da, eta goithuko du biarnesak edo gaskouñak. Biarnes eta uskaldun, algarrekin ezkontuz geroz, emazia izan dadin ala gizona uskaldun, bena berheziki gizona bera denian uskaldun, biarnesa bethi edo kasik bethi naousitzen zaio. Senhar emaziak behin algarrekin,

gero haourrekin, biarnesez mintzo dira, bat uskalduna izana gatik. Eta holache, emeki emeki, galtzen da uskara Herri mugetan. Badira herri osoak hola azkenekoz chahu biarnesturik, Montori bezala, galdu beitie bere uskaldun izenialano. Ezi diala aspaldi Montori deitzen zen Beraoritze. Sarrikota pekoa ere zinez biarnesturik da azken denboretan.

Uskarak badu biarnesaz beste etsaiik. Nour arren? gihaor; gu gira, gihaor, goure mintzoaren etsai handienak, uskararen gal erazliak. Jente chehia bera, ezpere Maole eta Atharratze uduri herrietan, bena bazter orotan kasik, uskara baizik eztakiana, uskaraz doidoia mintzo da, hitzen erdiak frantchimantari hartzez. Bena houra ezta ogendun, haboroetan eztakialakoz uskara garbiaren, garbi eztenetik berhezten. Uskaldun eskolatiak dira egiazki ogendunak, zerbait direnak, zerbait badakienak edo jakin behar lukienak. Hourak dira gaichkienik mintzo.

Beha ziteie zihaorer eta zien aldian erraiten dutienner : uskara uduri, eta fountsian frantzes edo biarnes solaz eta hitzkatze, uskaldun sorthu hanitchen ahoan. Ihour ezta gehiago uskara garbiz mintzo. Hanitchi eder zaie frantzesez mintzatzia (eta zer frantzesez Jinko Jaona!) oustez frantzesaren errotik ikhasirik direla. Uduri uskara mintzo direnien ere, bethi edo ardura phuru, erdarazko hitzez ahoaren bethia. Egiazki trufaz bezala mintzo direla uduri luke. Bena ezta batere trufarik haien mintzatzeko mouldian : zin zinez ari dira, batak ezacholkeriaz, bestiak zozokeriaz, oustez mintzo ederragobat eman.

Batek erranen deizu : Noula ekharten zira? — Hitzak oro uskara, mintzoa aldiz frantzes. Egiazko uskaldunbatek erran liru llaburkiago : Noula (edo nou-lache) zira? Bestebatek erranen deizu : Goure garnerak *enormiak* tuzu, — erran beharra : goure selauriak edo garnerak hanitch handiak, gaitzak tuzu; edo zerbait holako. Uskara garbiz mintzatu nahi laitekianak

erran liro : Goure belhartegiak edo bihitegiak ezinago handiak tuzu, edo hobeki orano. Bena *enormiak*; hori dela, hori, erdi frantzimantek bezala erraiteko « *orribleki parlatzia* ». Ziberoutarrek ja ez tie ukhatuko bere mintzoan aspaldi danik « horrible » hitza sar erazi diela. Eztut Ziberoutarren gañ ezari nahi Laphourtar edo Bacha Nabartarrek bere aldetik dutien estakuriak. Dona Johane Lohitzun izan denak entzun duke uskara bitchi eta erriegingarririk.

Zer diozie, izkiribatzen zian Laphourtarbatek, nik dakidan etcheke anderebatez, bere seme haor batez mintzo zelarik, zioanaz : « Drole da ; nere haurra *sependent* orai arte bethi *assidu* izanda eskolarat. » Assidu, drole eta sependent horik behar zitukeen entzun gure etcheke anderearen amacho zenak ! « Probable » da etzuela « du tout » konprenituko. — Maole hortan nihaorrek ene beharriz entzun dit adineko anderebat erreten laboraribati : « Haor hounek *introduisituko* zutu jaonarenganat. » Pharka othoi, basaburutar uskaldun maitiak, ezpalinbadakizie zer erran nahiden *introduisitzia*. Hatik Larrañe elizaltian izan direnek badakie uskara hori uduriaren zerbait berri. Noula erranen zien lehenagoko Uskaldunek basa hitz horren orde ? sar eraztia. — Eta holako zounbat, zounbat ? Eztugia hanitch laborari, gaztetan, bai zerbait adin dienetan ere, golde nabarrentako, charrua beitiioie ?

Orotakoa da sall hori. Bestorduz agour, edo egun houn, edo Jinko hounak derizula egun houn, eta bai zouri ere, bethi erraiten zen eretzetan entzunen duzie : « *Bonjour*, jaona ; bonsoir, Monsieur le Curé. » Nardagarri da. Eta ezta handi egun batez jaon uskaldun, egiazko uskaldun batek, haor tchar uskaldun hume bat buruz buru bathurik entzun zianian erraiten : « *Bonjour*, Monsieur, » ihardetsi bazon : « Kh...ka dela hire. »

Deus eskola estakienek eztira holakoer hañ ountsa

ohartzen, noula jakitate khochibat dienek. Bi mintzoak emaiten dutiener baloakeie bakhotcha bere zedarrietan egon eraztia. Mintza uskaraz edo mintza frantzesez aldebat; bena ez biak nahasteka. Hanitch aldiz ordian jakintsiak buruzagiak dira gaichki erakasle, hala noula eskoletako naousiak, eztirenian uskarari gerla egiten ari : gizoun ala emazte; chouri ala beltch, ala gorri, oro bardin; oro zouñ haboroka haorrer uskara ezinago okher eman eraztez bezala ari direla erran zinioie. Orai errejent haboroek debetetzen die haorrer uskaraz mintzatzia eskolan, eta, den gutieneko zuzenik gabe, eskolatik kanpo. Bestalde ait'amek ez chuchen mintzatzeko phenarik hartzen : erranen die, gorago aiphatu bezala, charrua golde nabarrentako; klotura, zerralliarentako; bordura, alhor bazter batentzat, ete beste holako zounbat?

« Diren bezalako gizoun muthur zouri eta emazte moko mehiak! Hola deramate goure uskara zaharra gabetzera bere hitz eta hizkountza uskaldun guziez, » izkiribatzen zian orano gorago aiphatu laphourtarrak.

Ouste duzie, beharbada, aphezek artha haboroche badiela, nourk bere parropian, ahaloroz uskara garbi begiratzeko? Zounbaitek bai, bena bekhan dira, eta eztugu Ziberoan, ene oustez, mentez entzunen Zalgi-zeko erretor zenak bezain garbiki uskara emaiten zian pheredikazalerik. Bikari gazte hoietan ere bada bat edo biga, dioienaz, uskaraz askitto eijerki pheredikatzen beitie. Bena, bena, beste elibatek, erran niro aphez haboroek, achola guti diela uskaraz ountsa mintzatzeko! Noula nahi emanik ere, orobat zaie. Ororentako atse edo plazer laiteke hatik pheredikiatik entzutia apheza uskara chuchenian mintzatzien. Bena hori duziela, indarkatuche behar hortako, eta hanitche herabe. Nahiago die, joanian joan, uskara bastartez pheredikia eman. Ezkontzetako kridak edo asteko mezak berak erantzutian, ageri da nourk zounbatetaranoko griña dian uskara chuchenaz. Petiri

eta Katicha algarreki eskountzeko *geietan* direla erraiteko orde, edo algarri hitzemanik direla...zer ezta entzuten? Hebertik *promes*, hantik *disposizione*, eta emak bethi hortik!

Beste hitzik eztenian ahal denari lotzen da; bena badirenian zerentako eman hitz hourak frantzesez edo biarnesez? Hola ezabatu dira eta ezabatzen egunoroz uskaldunen gogotik egiazko uskal hitz saldobat. Laphourdi hortan, bai Bacha Nabarren ere, entzuten tie artetarik aphezak mezen erantzuten uskara bitchibatetan, han gainti erran lioien bezala, hala noula : mezabat *monsieur* eta *madame*, edo *mademoiselle* houlakoaren phartez. Eztakit halaber denez Ziberoan. Segur orok bardin houn har liroie : mezabat holako etheko naousiaren edo etheko anderiaren izenian, edo mousde edo andere holakoak echi, edo orano holako izeneko jaon anderek eman erazten diena, karanba!

Bena ez; Jinko, goure Jaona, eta salbazaliaren Ama Andere dona Mariarentako, erraiten diren ouhouraluzko izenak eztira araouz aski goure egunko jaon andere batzientako. Ama Birjina eta Jinkoa beno gorago dira; deith itzatzie : « *monsieur, madame, mademoiselle.* »

Houn da Laphourtarrez edireiten tugun estakurietarik ikhaspen hartzia gihaorrentako. Zer da gutiago uskara, saintu edo sainta houlakoa erraitia beno? Lehenagoko Uskaldunek, ehi ezagun den bezala herri edo etchalte izen zounbaitetarik etzien hitzbat baizik zer nahi zentzutako sainturen aiphatzeko : Dona Maria, Dona Phaleu, Dona Marthine, Dona Phetiri. Saintu, sainta horik, aphezek asmaturik.

Badirade orano aphezetan, uskara mintzoaren aski etsai direnak, edo aski ezachol, haorrer katichimaren ikhas erazteko frantzesez, goiz arratseko othoitzen frantzesez erran erazteko. Elizate hatik deus hoberik haorrer uskararen maitherazteko eta gogoan ountsa


sar erazteko, deus hoberik, katichima eta othoitzen sor lekhuko mintzoan erakastia beno. Azken mentian bazen uskaldun aiphatubat Chinako misionetan higatu zena hogeibat ourthez arrount. Utzuli zen egunbatez etchenkoen ikhoustera, eta amiñibat phaosatzera bere herritarren artian. — Handi zeren orori noula, hainbeste ourthe eroan ondouan halako bazter hurrunetan, uskara ezinago garbi eta plañ emaiten zian. Haren arrapostia haoche zen : goiz arratseko othoitzak eztutit egundano uskaraz baizik erran, eta katichima Chinako paganoer egiten nizun uskal katichima hanko mintzoala utzultzen nialarik.

Badira Alemañan jakintzun dozenabat hañ choratirik goure mintzoaz, ikhasi beitie, eta zounbat nahi Uskal Herrian ez izana gatik azki garbiki izkiribatzen beitie. Haietarik bigek arra inprima-erutzen die ere, diala hirour ehun ourthez goiti uskaraz mouldatu zen lehen libria.

Guk, Uskaldun girenek, eztezagun ahatz arren goure mintzo ederra; mezako libria uskaraz irakour dezagun, othoitzak ere erran uskaraz; eitzi ditzagun bazter uskararen arnegazale, frantzimant *errhak* zuntzur zolan khurubilatzez erdaraz mintzo direnak, eta orano luzaz irañen du uskarak.



## GAODEN HERRIAN



**A**RMANAK tchipi hountan, bethi, egiten denaz geroz, zerbait izkiribatzen dugu laborari eta jente chehen hounetan, zinez maite beitutugu eta nahi beigunuke bere lur eta lanetarik idoki dizen bere heñaren araoera bizitzeko doia. Azken kartillan erakoutsi dugu noula etchaltebat, zounbat nahi abe-

rats eta azkar izana gatik, ehi itzaltzen ahal den buruzagien lazutarzun eta ezacholkeriaz. Houn da artetarik egia zounbaiten erraitia. Horra zertako nouen orai-koan, beste okherreriabatez mintzatzer, herritarrer erakoustera zouinden chuchen bidia.

Aithortuko dut gogo hounez, legiak eztirela hullanik ere beharbezala laborarien althe; haien zuzen gehienak eztutiela legek aski zaintzen, ezpadira ere artetarik haier aitzia joaiten; badiela nekezalek buru hortarik beretik zer egin. Bena berak ogenik gabe othe direia?

Alde orotarik heltzen zaikun berria haoche da: ihour eztela haboro lur lanetan ari nahi. Eitzirik sor lekha, aitasoek erabili lurrak, jente gaztia badoa saldoka bai hiri handietarat, bai itchasoaz bestaldilat. Basa basterrak husten ari dira, eta hiriak gaintika bethatzen. Zerk othe deramatze hola jentiak bere hatzetik kanpo? Thorpegi zaie hanitchi lur lana; badira han hebenka Uskal Herrian, ezniz Ziberoaz berbera mintzo, eretze elibat noun neskatila gaztek ezpeitie baratzetik kanpo, ez aitzurbat, ez eta jorraibat hounki nahi.

Laphourtar laborari zahar eta zuhur batek zioan bezala: « Herri hountan ezta gehiago landetan lanian ari nahi den emazterik; atcho zounbait, gorenetik; gaztiagoetarik guti, eta orai heñiala helturik direnak ekhiaren lotsa, lanaren ere bai... Orano nourbaitek zerbait ari beharko du hargatik; ezdiroke hounek irañ. »

Ezgira etchit hortaraturik goure Ziberoan; bena erran daite sall hori zinez sartzen ari zaikula, bazter orotan sarthu den bezala. Gobernialk bost ourthetarik egiten dutu hiri handietako bai basa bazterretako ekhoilarren khountiak: zer agertzen da khountu hoietarik? Hiri handiak geroago eta hantzenago direla, basa bazterrak ber heñian egoiten edo usiango orano hertzen. Sogizie Pariseri: han etzen diala berrogeibat

ourthe milioubat egoiliar; badira orai hirour miliou, ezpada haboroche. Sogizie Uskal Herriko chokho bati, Barkocheri : diala berrogei ourthe baziren han bimila egoiliar; orai balinbadira hamazazpi ehun, dena hartan.

Zerk deramatza hanbat laborari haor bere sor lekhotik hurrun, hiri handietarat edo itchasoaz haintialat? Han hobeki eta bere burien jabiago izanen direlako oustekeriak. Jente gazten artian badirade ountsatto, etchekoen eta herritarren begipian izatia jesan eztirokienak : ezpeitira hourak, gogoz phuru hobenetarik. Halakoak lehen estakurian badoatza eitzirik, zouñ aldiz, bouhasoak beharrune handitan. Heben deus edo guti ziren hourak, nourat ere beitoatza, han gutiago baizik eztirateke.

Hanitch jente han harat deramatza irabazi edo soldata handiagoen esparantchak, eta bizia alagerago eta eztiago hatzamanen dielakoak. Nahi dira aberastu eta bizi azahal bezanbat gozatu. Eta ezin ukha daite bizi gozoaren nahikunte hori handitzez badoela laborarien gogoan; hanitch nekez bizi direla, ezpeitakie haboroetan, gaiza dienian, doian edeiten, edo ezpeitira ihoulaz ere iseiatu nahi lurrer emanaztera usatiaz goiti.

Noula egia baizik ezpeita laborantcha lanidorra eta gaitza dela, eta hartan egin mouzkinetarik gutiz bestiak ezpeititazke goriki bizi, hanitchek egiten die beste nounbait hobeki izanen direlako ametsa, eta nekatu gabe biziko direla. Eskola zerbait dien jente gaztiak dutu berheziki amets horrek choratzen. Aitzurra beno arhinago luma; ahalke dira eskolaturik direnaz geroz, lur lanetan aritzera; eta gero, uduri zaie ere luma haren moskotik zer nahi idoki dirokiela.

Agitzen da artetarik bouhasoak ere ber ametsetan beitalbilza; eta beren khantian begiratzeko orde, berek igorten tie haorak hurrunialat; oustez bethi, bai beraien, bai haorren hounetan ari direla.

Zer bilhatzen dira izatez, zer atzamaiten die tresna edo lumabat eskian, edo eskiak hutsik, laborantcha eitzirik han harat doatzen haor eta jente gazte hoiek? Erranen deit nourbaitek hurrun joailetarik gutiz habo-roak han baratzen direla, eta gaizki balire utzul litezkiela herrialat. Zerbait utchura badu erran horrek; bena eztagoke halere utchuraren pian egia. Hanko gora beherak bere begiz ikhousi dutienek dioie itchasouaz haintilat joanetan badela hanitch arrajin beileiteke lehen beno lehen gibelialat, ountzia dohañ balie; eta beste hanitch ahalkiak daduzkatzala han, aspaldi hara joanez doluturik. Badirade bai, bakant elibat, utzuli beitira hountarzun guti edo hanitchekin. Bena khounta hourak zounbat diren, joan ziren ororen eretzian: ezi Ziberoutik hogeï ourthez arround joan da Ameriketarat buruz hogeï milaz goiti uskaldun, ehunbat hilabetekal. Haietarik zouñ dira alde hountarat orozbatkoz jinak?

Hiri handietarat joaiten direnen artian bada franko, zerbait eskola dienetan ja, behar gorriarekin gudukan ari denik. Eniz mintzo langile eta miskandiez. Langile houn badira, eta bizitze aguduan eraikirik, eztukie ez lan ez plaza mentsik. Bethi danik izan da miskandi uskaldun Bordalen eta Parisen, eta diala hirour ehun ourthe bizi ziren jaon handiek ezinago tchestatzen zutien miskandi uskaldunak. Lehen postak ezari zutienian houñez beitzabilzan ordian, ezari zutien letera eta mezien eroaiteko uskaldun saldo bat. Hortarik araouz baratu da, behere hortako mintzoan, erran zahar hao: uskaldunbatek bezala laster egitia.

Bena miskandi eta neskatoetan berian hargatik, zounbat ezta irabazi handiez hain zentzordaturik noun ezpeititazke nihoun ere antzaka ahal? Zounbat neskatila herritik joanik errelijionetiar eta garbi, chahu nahasi beitira eta gaichki kobratu? Haietan aphur burutan joaiten direnak. Osagarria dieno, bizi ahal noula; ardura gosia sabelian. Hetarik guti zahartzen


da ; helzen zaienian eritarzuna, sobera dohatsu atzaimaiten badie atherbe eta ohantze ospitalebat etan. Eta burutan joailek lana eta biziphidia bethi aithorgarri dieia? Ala jente gaztiarentako lerrakor beitira hirietako kharrikak ! Ala hanko hanitch utchura ederrek barne theiak beitaduzke ! Denborarekin, batheiatu rik ezpalira beno haboro khiristiaren utchurarik ere ez tie hanitchek begirutzen, eta holakoak geroago eta haboroago dira. Heben egiten zen barnez eta kanpoz behar zena ; bena bere gain jarri, beraiez jabetuz geroz, ezachol bilhakatzen, eta gero gazte eta zahar, ageri da zer bizitze eroaiten dien, eta geroari buruz zer urhatsetan dabilzan. Itchasoaz gainti joan direnak sordeis orano, hounat utzultzen diren haboroak ja.

Hobena arren gisa oroz herrian ahalaz egoitia.

Erran dezadan urhentu gabe orai berri egin diela uskaldun mithil eta neskatoen hounetan bilkhura khiristibat. Hatsarrian bildu nahi ukhen dutie biarnes eta gaskouñak ere. Bena Uskaldun saldo bat bada aski handi berek bilkhura berhez baten egiteko. Parisat joaiten denak, nahi bada hartan sarthu, askiduke R. P. Marie Antoine denari, 8, rue François I<sup>er</sup>, izkiribatzia.



## LABORANTCHA



### I. Uztak 1899<sup>an</sup>.

**L**ABORANTCHAKO gasetek eta gobernialak eman dutie azken egun hoietan uzten berriak. Ogi uztaz aiphu, *Bulletin des Halles* denak dio eraiki diela 122 miliou ogi zaku, erran nahi beita zortzi miliou igaran ourthian beno gutiago ; uzta houna halere, eta etzen hain handirik izan hogeitabost our-

the hountan, 1874 koaz eta igaranaz kanpo. Beharrentako aski badatekia? Ouste die daigun errekoaltala drano beharko dela bi miliou zaku haboro; bena noula beita ogi zahar phouska handibat, ezta miliou eterdi zakuz goiti atze herrietarik sarthuko Frantzian. Hanitch eretzetan haro gaitzek etzan tie ogiak; halere haboroetan buriak ezinago handitu dira, bihia ountsa hazi eta edertu. Segur aspaldian etzien holako bihi ederrik ukhen, eta ezpazen igaran ourthian bezain beste azao, ountsa phezu eta bihizu bilhatu dira.

Ogiaren prezioek zounbait gora behera ukhen die setemer 1898<sup>az</sup> geroztik; hoge eta hogeitabat libera eterdien artian egonda kintalia, eta apherilaz geroztik bethi aphaltzez joan dira prezioak. Ouste ukhen die uzta eskaztto zelakoz gorentucheran zirela, bena bethi aphalt egoiten dira. Erran daite hola balinbada, gobernariak prefetenbidez ukhen berriak direlakoz dela. Ezi gobernariaren arao, balizate azken uztatik Frantzia orotan 129 miliou ogi zaku, eta lehenchago erran ukhen zian bazatekiala 131 miliou. Noula arrakharderrak bethi baliatzen beitura bere hounetan berri hala eztirenetzaz, hori da ogi prezioaren aphalt eduk erazlia.

Mundu orotako uzta heltzen da 886 miliou eterdi zakutara, igaran ourthian bazelarik 989. Eskaz handi horrek eztuke deus gaitzunerik zeren azken ourtheiko uzta bezañ handirik ezpetzien behin ere ikhousi, eta ogi hanitch erosten dien herrientako doia badate nasai. Nort Amerikan da gehienik aphalt izan uzta; eta hora beita hebegaintiko fornizale handiena, segur da ogiaren prezioak hanitch luzatu gabe goratuko direla. Anglaterrak berak beharko du usatiaz goiti, berri phiztu dian gerla baizik eztelakoz.

Uskal Herriko laborariak arren ountsa eginen die begiratzen badutie ahalaz berant ogi saltzekoak; baliatuko zaie, oraiko prezioek ezpeitie luzaz irañen. Erran behar da ere beharuniak geroago eta handiago direla ogi jale haboro delakoz eretze orotan.

Olho izan da ere 1898<sup>an</sup> beno gutiago, goberniak dioanaz; bena laborantchako gasetek ezte deusere erran orano, baizik eta olho uzta aski houn dela; garrarena artekotto. Idortiak ogen egin dere guneka arthouer : bihia ezta gune hetan hañ ountsa hazi eta buriak tchipi baratu dira.

Lursagar izan da eijerki eta eritarzunak eztutu beste ourthez bezala jo. Betaraba bazkageiak, luzaz tchar egonik, loditu dira euria jinez geroz : uzta doibat eman die. Ezta orano ountsa ezagun zounbatsu ardou egin den. Hegoalteko mahastier kalte handia ekharri zeien martcho oundarreko izotzek; gaitzago izan dira orano apherila 12, 13 eta 14 ekoak. Aihena halere haboroetan ountsa lilitu da, morkhouak eta mouhouriak ountsa hazi. Eritarzunek guti jo die; hartakoz dioie ardoua houn datekiala. Egiaren erraiteko hain haro ederra izan da uda orotan, eta beroa, noun mahatsa hanitch ountsa hountu beita.

Kanpotik sartzen ziren ardouen thalak ere gorentu tie, eta indarraren grado ezari. Holaz, beharbada, zounbait ardou subertez bestalde, etzaiku sarthuko Frantzian azkartzen zutien ardou hetarik. Sagar izan da guneka hanitch.

Lehen belhar ebakaldia ezinago eder izanda kasik orotan, eta haro hounareki bildu die. Arradallik ezta izan aiphatzeko doia hegoalteko bazterretan, idortia jin delakoz.

Kabalen prezioak bethi aphas, geroago eta aphasago salbu chahal eta aharienak. Hoietakoa gora beherek ezte jaozi handirik egiten, bena prezioak halere aphaltto.

Ilhe chehetan izan da ugurukiten etzien gorentzebat handia. Houn zatekian hori goure herriko ilhe salzalentako, bena heben ezta ares ilhechehedunik; eta Frantziako eretze haboroetan zounbait ourthe hountan etzutien hazten ahariak ilhiarentako, bena arakhinialako. Haoche zer agitu den : Australia den islan izan

da laor ourthez arround idorte gaitzik, eta balinbazen han gainti, 1891 an, 69 miliou ahari, etzen aorthen berrogeiik ere. Bestalde herri hartan eta La Plata denian, aragiaren kharrouaren bidez begiratzeko tresnak usutu direnaz geroztik, hazten tie ahariak gehiago arakhinialako eziez eta ilhiaren gatik. Hartakoz dira ilhen prezioak gorentu, chehenak lehenik; larrienak, ere oundotik hasi dira gorentzen, eta ezta dudatzeko eztirela boullta houn batez goratzez baizik joanen.

Uskal Herrian, laborariak ourthe houna die zer nahi uzta suberterentako arradallaren salbu, eta, guneka, arthouaren. Laphourdin etzien 30 ourthe hountan izan den ogi uzta bezañ ederrik ikhousi. Gaztaña izanda aosarki, eritarzunik etzen eretzetan, eta ezta teke zi eta ezkur mentsik. Izan da ere ardou, bena, bena, *phylloxera* den eritarzuna Mendikotan hasirik igaran ourthian, sarthu da aourthen Dona-Estebe eta Zalgi-zeko zounbait mahastietan.

## II. — Ogi azikaz. — Ereiteko moule berribat.

Ogi lurrik hobena da, ez tinkegi, ez lachiegi den lurra, hariña, buztin eta harlako (calcaire) dian alhor lurra, ez gizenegi, ez mehegi : gizenegi, ogia erorten da eta bihia balheiu baratzen ; mehegi, ogia ez arpatzen. Ziberouko lurra gisa hortako lurra da, eta badu hartakoz aski indar bai hotz, bai bero borthitzegier buhurtzeko, bena ez gune orotan ; eta hala ezten eretzetan, bortchatu da ihour aitasoek eitzi deroien alhorretan ereitzen egitera.

Egun jiten banitzaizie ogiaz mintzatzera, jiten niz erraiteko ogi haboro eraikiten ahal duziela, urhats chaharretarik nahi baziradeie amiñibat jalkhi eta berri elibati jarraiki.

Alhorren chahu edukitia, dudarik ezta, lurraren izatiak bezañ balia badiala ogia houn eta eder emai-

teko : ezi belhar gaichtoek hounkallien indarra bere-tzen badie, ezta deus baratzen ogi zañaren jinen den ourtheko. Azikako lurrak ountsa erabilirik izan behar du achalian, bai eta zolan, ogi burnatia ehi agert dadin achalialat eta erroak igor barnialat. — Haregatik bar-neko lurrak tinkago izan behar du, sobera aphalt eta zapha eztadin ogiaren sortzeko phuntian : bestela ogi burnoa gaichki erabil liroke. Anglaterrako laborari-ek, aspaldi danik goure naousiak direnek laborantchaz aiphu, unkhia igaran erazten die alhorrian, ogi ereite-tik landan, berheziki aitzineko uztak lurra mardoegi eitzi dianian, ogiaren sortzian lurrak sobera eman eztezan behera.

Bena zounbat nahi lanak ountsa eginik eta alhorrak chahu edukirik, nourk ukha eztela leheneko denbora, eta ereitze ederrik nahi dianak, behar dela hersatu kounkallu berrier, *engrais chimiques* frantzesez dei-tzen dutiener?

Dugun berhala erran zer hounkallu behar den ogien-tako, zouñ hobekienik lakhet zaien. Nouiz ere ogiak ostoua hersi, tchar eta hollats beitu, *azote* hounkallia da ogi ostoia eta zankhoa senthotzen eta edertzen diana. Hortarik ogier emaiteko erosten da *nitrate de soude* dena, eta ezarten ogia bezala ourthoukitez martchoan edo apherilan, ogien galtzara aitzinian edo ondotik, ithegunian 50 kiloen altia, beste hainbeste edo habo-roche plastrerekila nahasirik.

Haregatik ogi dringo eta ogi buru eder emaiteko ezta hounkallu hora berbera aski ; behar zeie orano eman ogier *phosphate* deitzen den hounkallia, erostez *superphosphate* merketik. Phosphate delako horrek du ogi bihia egiten eta edertzen, lastoa gogortzen eta ogia erortetik begiraten. Martchoan edo apherilan ezarten da *nitrate* denetik landan, edo hounekin na-has. Parise unguruneko laborari-ek, ogia ereiten die-nian beterraben ondotik, ezpeitie ordian gorotzik emaiten lurrer, ezarten die phosphate hounkallia,

*sulfate d'ammoniaque* ede *nitrate de soude* denarekin nahas, ereiteko phuntian. Ber houn unia daduka lurretan ezartia, phosphate denaren orde, *scories* deitzen den hounkallia. Bena hounek behar du ezari bethi ogier, ereiteko phuntian, ildon gaña, ourthoukitez azaroan, zeren boullta, superphosphate denarenak beno baratchago beitu.

Halaber, gorotzaren lagun *engrais chimiques* amiñibat sorhoer ezarten dian laboraria segur da belhar ederrik ukheitia, eta haien erosteko dihariaz goiti, hanitchez, emanik izanen zaiola gibelilat uztetan.

Houna zer esprabu, orano berri, eginik izan den Maole khantuko herribatetan. Syndikateko Jaon gehienbategal galthatu zian aizo dian laborarichehehati zounbat ogi idokiten zian bere okholuko alhorretik: « Jaona, laborariak ihardetsi, hamabost gounka eraikiten dit, eta zounbait aldiz, bekhan, heltu nuzu hoge gounkatara. » — « Nahi naizia, jaonak aitzina, eitzizoure alhorrian hounkallu berri amiñibaten ezartera? hitzemaiten deizut hoge gounka ogi, eta hatik, haboro balinbadate, haborokin hora ene dukezu. » — « Jaona, erraiten dero laborariak, hoge gounka segurtatzen badeiztadatzu, ezar itzatzu ene alhorrian nahi tuzun inkhanioak oro. » Heltu zenian thenoria, syndicateko gehienak manhatu zian mithila prestatu zeitzon hounkallien ereitera, eta ogioa jo ondouan, agitu zen alhorrak emen ziala hogeita bost gounka bihi. Erran gabe da, gehienak etzutiala bost gounka haborokin hourak hartu nahi ukhen, eta laborariak haren alhorrian ezari hounkallia gogo hounez phakatu ziala.

Zouñ ogi muta hobena da Ziberou herriko? Balitzakio hanitch aziaren haitatzia eremu handietako; bena ez Ziberouan, eskiak chehe direlako eta lurra sobera zathikaturik. Hartakoz uduri zait, kartieleko ogia, ogi bizarduna dela orano goure lurretan hobekienik emanen dian ogia, nahi bada ezten behere ho-

rietako ogia bezañ aberats. Okhinek dioie bizardunak beste mutek beno ogia moufliago diala.

Zer nahi bihi haitaturik, ereiteko aziak izan behar du ez berere eder, bena orano sano ; hartakoz die ogi azia bahian khurubillatzen azi gaichtouen eta bihi balheiu direnen berhezteko. Ezi bihi balheiiak ereñ balite, ez lukie indarrik burnatzeko, ez gorentzeko. Horregatik die ere azia ukhuzten bitriolian edo latsunian. Latsunaz egiteko, hamar kilo latsun behar da ehun litra hourentako, eta liberabat itchaso gatz nahasirik. Hori da mouda zaharra. Hanitchek orai nahiago die bitriolian azia ukhuzi. Zakubat ogi azien bitriolian ukhuzteko, behar da 150 grama bitriol blu hourt erazi zortzi litra hour epholetan, eta hustu ogin gaña phalabatez ogi athia ountsa nahasten delarik. Noula bitriola phozou beita, khasu egin behar da ollouek bitriol hourian erabili bihitik jan eztezen.

Ogi aziaren berhezteko houn lizate herrikal izan ledin *trieur* deitzen den tresnabat, ogi bihi ederrak, arteko eta balheiietarik eta zalgietarik berhezten eta bedera gainti ezarten beittutu. Merkenak ehunbat libera khosta dira, eta bada bost edo sei ehun liberatara drano.

Aphur laborarik dakie chuchen zounbat ogi azi behar den ithegunbat lurren ; heinbat haboro edo gutiago ezari beharko da sasoaren arao, lurra gizen edo mehe bada, goizik edo berant ereiten balinbada, azia barna edo goihera ezarten bada. Mouda zaharriala ourthoukitez ereiten denian ogia, behar date berrogei litra, edo gounkabat azi ithegunkal. Hamarbat egun goizikago Ziberoan ogien ereitez elizate hobe baizik eurite denbora jin gabe.

Gorago erran dut nahi nutukiala ikhousi ziberoutar laborariak urhats chaharretarik jalkhiten hartzeko azikako mouda berriak. Hartako niz mintzatu hounkallu berriez eta orai mintzaturen niz ogi ereiteko tresnez eta ogien herrokaz ereitian dukezien ekhoizpenez.

Bada Ziberoan laborari orano arthouak herrokala ereiten eztutienak ; galtha zertako, eta erranen deizie : artho haboro ukheiteko. Bai artho zankho deret erranen, bena ez artho bihi ; bestela etzian jentiak eitziko mouda zaharra eta etzen jinen hartzera markala edo herrokala arthoen ereiteko mouda.

Arthouaren ber abantallak direlako ogiaren ere, herrokala ereitez, jiten niz ziberoutar laborarier erraitera eitzu behar diela orai artino jarraiki dien azikako mouda eta hartu herrokala ereitekoua. Ezta ez ogi ereizalia hanitch khostatzen den tresnabat. Bi laborarientako bat aski lizate eta bakhotchak berrogeita bostna libera ezartez badukie laor ogi herroka aldian ereñen dian ereizalebat. Noula hirour gerren phartebat azi aphurrago behar beita, ogia herrokala ereitez, hirour ogi zaku ereiten dianak mouda zaharriala, bat irabaziko du herrokala ereitez, eta bizpalaor ourtheren buruko azi irabazitik phakaturik date, eta dohañik, erosi tresna.

Bestalde ezta azi irabazian berbera mouda berriak dadukan abantalla. Besterik badu, eta handiago, ogien bertan eta ountsa chahatzekoua, zeren eta herrokan den ogia aitzurraz ehi chahatzen beita, eta jorratzen ber bidez. Borogaturik da herrokan den ogi eskuta pheziago dela beste gisala ereña beno, araouz lachukiago airia kourritzen delakoz herroka artetan, eta hola ogi zañari maniak hobeki eginik zaitzolakoz.

Ereizalebaten erosteko ezta hurrun jouan beharrik : badira orai Atharratzen eta Maolen holako egiliak, eta herrian berian erostez, burduin bideko porte sariaz merkiago duke erostunak. Ourdiñarbe Lahuntzungoitiko buruzagiak ere egiten tu, merke eta houn, 55 liberatan.


Tresna berak artho ereiteko phuntia jin denian, ogi ereiteko bezain zerbutchu eginen deizie arthouen ereiteko herrokala, emazte ez langile batere beharrik gabe, zeren eta tresna horrek arthoua markatzen, ereiten

eta thapatzen beitu ber den boran, bihi bakhoitzbat agerian eitzu gabe. Erran behar da ere ala ogia ala arthoa nahi den barnagoan ereiten ahal dela.

Atsereki ikhousi eta erran behar dit Zalgize eta Ourdiñarbe, eta gero Barkoche direla lehenik herrokala ogien ereiten hasi diren herriak; eta egunko egunian Zalgizeko laborariek ezte herrokala baizik ogirik ereiten. Urhentzeko erranen dut: bi ourthetarik bi ourthetara ereitze bera ber eskila jin erazten dian mouda den eretzetan, eztela ogi ereiteko beno arma zerbutchu haboro eginen dianik Ziberouko laborariari.



## ISTORIA ETA ERASI



**B**ARGULANT aiphu handieneko batek bere hountarzunak oro eman zutian praober, bizitzeko doia baizik beretako begiratzen etzialarik. Borthaz bortha bazabilan orano praobentako galthatzen, nahiz haboro eman. Egunbatez gizoun aberats bat bathurik plazabatetan, paseiun ari zelarik, arri-matzen zaio eta galthatzen zerbait amouina praobentako. Aberatsak, beste hanitchek bezala, arrapostu eztiala deus emaitekorik. Bena galthazalia ezta etsitzen; jarraikiten da aberats miliounairiari, bethi galthoz, eta haren ondotik sartzen ostatian hartu zian khanberala drano. Aberatsak, zañak ozkiturik, hara heltu bezain sarri, beharraltekobat emaiten dero galthazaliari: « Jaona, hounek berhala, hori enetako; bena othoi, othoi, eman ezadazu zerbait gaicho praobentako. » Azkenekoz hounki zian aberatsaren bihotza, eta ukhen amouinabat, ugurukiten ziana beno hanitchez handiagoa.

\*  
\*\*

Basa barberbat Cuba den islalat joan zen eta han

bere ofizioan aberastu. Irabazi dihariez erosi zian hanko sukre lankhia handibat, langile beltzeki eta arrastako ororeki.

Egun batez bere lankhiatik galtzen du diharutze handibat. Nour dian ouhouña jakiteko, charlata izan zen bezala, asmatzen du beniabat. Jin erazten dutu bere aitziniala lankhiako beltzak oro, eta herrokabattetan jar erazten : « Adichkidiak, erraiten deie, barda agertu zait suge handia, (hourada beltzen jinkoa), oro ikhousten eta oro dakitzan sugia; harek erran deit nour den zietan ene dihariaren ebaslia. Errandeit memento hountan nourk ere beituke perruket lumabat sudur phuntan, houra dela ene dihariaren harzalia. Hain sarri herrokan den beltzetarik batek eskia emaiten du sudur phuntala eta naousiak berhala : « Hi hiz ene sosen ebaslia, sugiak orai berian erran ditak. » Beltz houra, sosez zerbait berri beitzakian, ikhertu zien, sosa hatzaman, eta naousiak zehaldi garratzbat eman erazi zeron.

\*  
\* \*

Behin bi gizon, bata judio, bestia khiristi, bazoatzen algarreki bidajez. Judioa erori zen phutzubate-tara, eta hantik jalkhiten laguntzeko khiristia badoa lehen etchiala zurubu elibaten tcherkha. Bena noula neskaneguna, edo judioen *sabat* eguna beitzen, judioak khiristi lagunari oiuhu egiten dero phutzun barnetik : « Ez egunko egunareki ekhar hounat zuruburik, sabata beita. » Eta gaia oro eroan zian zilon barnen, bidarrialano hourian. Biharramenian khiristia joan zen berriz phutziala jakitera noula lagunak freskura hartan gaia igaran zian. Phutzu hegila heltu deneko judioak oiuhu : « Othoi, othoi, Jinko hounaren amouregatik bertan hounat zurubiak ! » — « Jinko hounak begira nezala, bestiak hain sarri arrapostu, zurubien hounkitzetik ; eztakika egun igantia dela ? »

\*  
\* \*

Piarreñi laboraria ollasko biga har, eta badoa mendiarri beheara janartoraren ikhoustera. Heltu denian aphez etchera, joiten du bortha eta agertzen zaio gelharia : « Zer? eta zu heben, Piarreñi? Sar zite, sar zite. » Jar erazirik sukhaltian badoa janartorari erraitera Piarreñi hor dela ollasko parebateki jinik.

Janartorak gelhariari : « Errozu Piarreñiri ofizioaren urhentzen ari nizala eta berhala harekin nizala; arte hortan eman ezozu jatera ogi eta gazna, ardou tzortabatekin. Gelhariak, mahañ gañen tahallabat hedaturik, ekharten dutu janartorak manhatiak. Araoetz ebiltiak phiztu zeron Piarreñiri jateko mengoa : ezi tchestu hounian abiatu zen. Bostgerren gazna zerraren mouzten ari delarik, erraiten dero Marider gelhariari : « Oi! zer gazna houna dian janartorak; enuzu ukhuratzen ahal jatetik. » Gelhariak ikhoustetaz Piarreñik gazna chahatzen derola, badoa eskalerretan gora buruzagiari erraitera bertan eraitch dadin bestela sarri eztela baratuko gazna ahamenik. Berhala eraitchen da janartora gogoan erabilirik zer erranen dian Piarreñiri gazna jatetik bara erazteko. Hounki jinak ukhen, eta Piarreñi jarten da janartorari diolarik : « Zer gazna houna duzun hao! » — « Bai houna duzu, bestiak ihardesten, bena badizu zerbait gaitzune. » — « Eta zer arren? » Piarreñik aitzina. — Soberachko jaten dianari motheltzen diozu mihia. » — Piarreñik ordian, chutiturik eta gazna bi eskiez etchekiten diolarik : « Ifernuko mila debriak beitu ene emaztiak mihian, gazna oundar hao eroaiten dit haren mothel erazteko! »



MAIATZA edo EPHAILA


Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ☽ l. l. 6<sup>n</sup>, goizanko or. 1 eta 6<sup>m</sup>.
- ☾ a. o. 14<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 46<sup>min</sup>.
- ☿ a. l. 22<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 40<sup>m</sup>.
- ☼ a. b. 28<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 59<sup>m</sup>.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.



- ☽ l. l. 4<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 8<sup>min</sup>.
- ☾ a. o. 12<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 48<sup>min</sup>.
- ☿ a. l. 19<sup>n</sup>, arrastiriko or eta 6<sup>min</sup>.
- ☼ a. b. 26<sup>n</sup>, arrastiriko or. 1 eta 37<sup>m</sup>.




1 Asteharte.	J. Filipe et. Jak. Ap.	1 Ostirale.	sa Kler.
2 Astizken.	s. Atanasio.	2 Neskan. <i>Bar.</i>	s. Poteñ.
3 Ostegun.	Da Khurutze.	3 <b>Igante.</b>	PHENTEKOSTE.
4 Ostirale.	sa Monika.	4 Astelehen.	s. Frantzes K.
5 Neskanegun.	s. Pio V.	5 Asteharte.	s. Bonifazi.
6 <b>Igante.</b> 3.	s. <i>Johane Eb. B L.</i>	6 Astiz. <i>IVTh. B.</i>	s. Norbert.
7 Astelehen.	s. Stanizlas.	7 Ostegun.	s. Majan.
8 Asteharte.	J. Migel. Ag.	8 Ostir. <i>IVTh. B.</i>	s. Medart.
9 Astizken.	s. Gregori, Na.	9 Nesk. <i>IVTh. B.</i>	sa Prima.
10 Ostegun.	s. Antoneñ.	10 <b>Igante.</b> 1.	TRINITATE.
11 Ostirale.	s. Antimo.	11 Astelehen.	J. Barnabe, ap.
12 Neskanegun.	s. Nere eta Akil.	12 Asteharte.	s. Johane F.
13 <b>Igante.</b> 4.	s. <i>Jenio.</i>	13 Astizken.	s. Antoni, Pad.
14 Astelehen.	Johane Sala, d.	14 Ostegun.	BESTABERI.
15 Asteharte.	s. Eutrope.	15 Ostirale.	sa Jermena.
16 Astizken.	s. Johane Nep.	16 Neskanegun.	s. Franzes R.
17 Ostegun.	s. Paskal.	17 <b>Igante.</b> 2.	s. <i>Avit.</i>
18 Ostirale.	s. Venanze.	18 Astelehen.	sa Marina.
19 Neskanegun.	sa Pudenziana.	19 Asteharte.	s. Jervasi.
20 <b>Igante.</b> 5.	s. <i>Bernardein.</i>	20 Astizken.	sa Julienu F.
21 Astelehen.	Errogazioniak	21 Ostegun.	s. Louis Gonz.
22 Asteharte.	sa Kiteria.	22 Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
23 Astizken.	s. Ubalde.	23 Neskanegun.	s. Eusebio.
24 Ostegun.	SALBATORE	24 <b>Igante.</b> 3.	J. JOHANE BA.
25 Ostirale.	s. Gregori VII.	25 Astelehen.	sa Eurosia.
26 Neskanegun.	s. Filipe Neri.	26 Asteharte.	s. Johane eta Paole.
27 <b>Igante.</b>	sa <i>M. Mad. P.</i>	27 Astizken.	s. Prosper.
28 Astelehen.	s. Jermeñ.	28 Ostegun.	s. Irene.
29 Asteharte.	s. Garzia.	29 Ostirale.	J. PETIRI et P.
30 Astizken.	s. Felis.	30 Neskanegun.	J. Phaolereu orh.
31 Ostegun.	sa Anjela.		



## UZTAILA


Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- D l. l. 4<sup>n</sup>, eguerdi eta 23<sup>m</sup>.  
 ☉ a. o. 12<sup>n</sup>, goizanko or 1 eta 31<sup>m</sup>.  
 ☽ a. l. 18<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.  
 ● a. b. 26<sup>n</sup>, gaiko or 1 eta 52<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- D l. l. 3<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 55<sup>m</sup>.  
 ☉ a. o. 10<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 39<sup>m</sup>.  
 ☽ a. l. 16<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 53<sup>m</sup>.  
 ● a. b. 24<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 2<sup>m</sup>.




1	<b>Igante.</b> 4.	J. K. Odol Pr.	1	Astizken.	J. Petiri katiel.
2	Astelehen.	A. B. BizITAZ.	2	Ostegun.	s. Alfonso, Lig.
3	Asteharte.	s. Anatole.	3	Ostirale.	J. Esteber. edir.
4	Astizken.	s. Léon II.	4	Neskanegun.	s. Dominiche.
5	Ostegun.	s. Zirile.	5	<b>Igante.</b> 9.	A. B. Elburr.
6	Ostirale.	s. Trankile.	6	Astelehen.	J. K. Transfig.
7	Neskanegun.	s. Marzial.	7	Asteharte.	s. Kajetan.
8	<b>Igante.</b> 5.	sa Beronika.	8	Astizken.	s. Ziriako.
9	Astelehen.	sa Elisabet, P.	9	Ostegun.	s. Jermeñ.
10	Asteharte.	7 anaie m.	10	Ostirale.	s. Laorentz, m.
11	Astizken.	s. Pio.	11	Neskanegun.	s. Tiburze.
12	Ostegun.	s. Johane G.	12	<b>Igante.</b> 10.	sa Klara.
13	Ostirale.	s. Anaklet.	13	Astelehen.	sa Radegonda.
14	Neskanegun.	s. Bonaventura.	14	Asteharte.	s. Eusebi.
15	<b>Igante.</b> 6.	s. Henrik.	15	Astizken.	A. D. MARIA.
16	Astelehen.	A. B. KARMEL.	16	Ostegun.	s. Rok.
17	Asteharte.	s. Aletsis.	17	Ostirale.	sa Emilia.
18	Astizken.	s. Kamille.	18	Neskanegun.	sa Elena.
19	Ostegun.	s. Bizente Paolo.	19	<b>Igante.</b> 11.	s. Joakino.
20	Ostirale.	s. Filibert.	20	Astelehen.	s. Bernat.
21	Neskanegun.	sa Pratseda.	21	Asteharte.	s. Julien Lesk.
22	<b>Igante.</b> 7.	sa M. Madalena.	22	Astizken.	s. Ipolita.
23	Astelehen.	s. Apolinari.	23	Ostegun.	s. Filipe Ben.
24	Asteharte.	sa Kristina.	24	Ostirale.	J. BARTOL., ap.
25	Astizken.	J. JAKOBE, ap.	25	Neskanegun.	s. Louis, erreg.
26	Ostegun.	sa Aña.	26	<b>Igante.</b> 12.	A. B. Bihotz.
27	Ostirale.	s. Galatori.	27	Astelehen.	s. Zezaire.
28	Neskanegun.	s. Nazari.	28	Asteharte.	s. Agosti.
29	<b>Igante.</b> 8.	sa Marta.	29	Astizken.	J. Joh. Lephom.
30	Astelehen.	s. Abdon.	30	Ostegun.	sa Rosa, Lima.
31	Asteharte.	s. Iñazio Loi.	31	Ostirale.	s. Remoun N.



BURUILA edo SETEMER


Eg. Ilaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ☉ l. l. 1<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 5<sup>min</sup>.
- ☽ a. o. 8<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 15<sup>min</sup>.
- ☿ a. l. 15<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 6<sup>min</sup>.
- ♁ a. b. 23<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 6<sup>min</sup>.

URRIETA

Eg. Ilaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☉ l. l. 1<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 20<sup>min</sup>.
- ☽ a. o. 8<sup>n</sup>, gaiko or. 1 eta 27<sup>min</sup>.
- ☿ a. l. 14<sup>n</sup>, arratseko 10 orenan.
- ♁ a. b. 23<sup>n</sup>, goizanko or. 1 eta 37<sup>m</sup>.
- ♂ l. l. 30<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 27<sup>min</sup>.




- |    |                          |                          |
|----|--------------------------|--------------------------|
| 1  | Neskanegun.              | s. Jiles.                |
| 2  | <b>Igante.</b> 14.       | <i>D. Justi.</i>         |
| 3  | Astelehen.               | s. Lizier.               |
| 4  | Asteharte.               | sa Frantzesa Ch.         |
| 5  | Astizken.                | s. Laorenz J.            |
| 6  | Ostegun.                 | s. Onesiforo.            |
| 7  | Ostirale.                | s. Zebero.               |
| 8  | Neskanegun.              | A. B. SORTZIA.           |
| 9  | <b>Igante.</b> 15.       | A. B. <i>Izen Saint.</i> |
| 10 | Astelehen.               | sa Pulkeria.             |
| 11 | Asteharte.               | s. Iazinte.              |
| 12 | Astizken.                | s. Gi.                   |
| 13 | Ostegun.                 | sa Ujenia.               |
| 14 | Ostirale.                | Dna Khurutze.            |
| 15 | Neskanegun.              | s. Nikomede.             |
| 16 | <b>Igante.</b> 16.       | <i>A. B. Dolor.</i>      |
| 17 | Astelehen.               | s. Frantz. zaor.         |
| 18 | Asteharte.               | s. Jusef Kup.            |
| 19 | Astizk. <i>IV Th. B.</i> | s. Janvier.              |
| 20 | Ostegun.                 | s. Eustache.             |
| 21 | Ostir. <i>IV Th. B.</i>  | J. MATHIU, Eb.           |
| 22 | Nesk. <i>IV Th. B.</i>   | s. Maorize.              |
| 23 | <b>Igante.</b> 17.       | sa <i>Tekla.</i>         |
| 24 | Astelehen.               | A. B. Librazalia         |
| 25 | Asteharte.               | s. Aostinde.             |
| 26 | Astizken.                | s. Tomas Vil.            |
| 27 | Ostegun.                 | s. Kosme eta Dam.        |
| 28 | Ostirale.                | s. Faoste.               |
| 29 | Neskanegun.              | J. MIGEL, ark.           |
| 30 | <b>Igante.</b> 18.       | s. <i>Jeronimo.</i>      |

- |    |                    |                        |
|----|--------------------|------------------------|
| 1  | Astelehen.         | s. Remi.               |
| 2  | Asteharte.         | Ainguru beg.           |
| 3  | Astizken.          | s. Binzezlas.          |
| 4  | Ostegun.           | s. Frantzes, As.       |
| 5  | Ostirale.          | s. Apolinari.          |
| 6  | Neskanegun.        | s. Bruno.              |
| 7  | <b>Igante.</b> 19. | ARRUSARIOA.            |
| 8  | Astelehen.         | sa Birjita.            |
| 9  | Asteharte.         | s. Denis.              |
| 10 | Astizken.          | s. Frantzes B.         |
| 11 | Ostegun.           | sa Sabina.             |
| 12 | Ostirale.          | sa Daonina.            |
| 13 | Neskanegun.        | s. Edoart.             |
| 14 | <b>Igante.</b> 20. | <i>A. B. Amatarz.</i>  |
| 15 | Astelehen.         | sa Teresa.             |
| 16 | Asteharte.         | s. Beltran.            |
| 17 | Astizken.          | sa Edvije.             |
| 18 | Ostegun.           | J. LUK, Eb.            |
| 19 | Ostirale.          | s. Grat., Olor.        |
| 20 | Neskanegun.        | s. Johane K.           |
| 21 | <b>Igante.</b> 21. | <i>A. B. Garbitarz</i> |
| 22 | Astelehen.         | s. Petiri, ale.        |
| 23 | Asteharte.         | s. Leotade.            |
| 24 | Astizken.          | s. Rafael, ark.        |
| 25 | Ostegun.           | s. Krespi.             |
| 26 | Ostirale.          | Salbazalia.            |
| 27 | Neskanegun.        | s. Fronton.            |
| 28 | <b>Igante.</b> 22. | <i>A. B. Patron.</i>   |
| 29 | Astelehen.         | J. SIMOUN, ap.         |
| 30 | Asteharte.         | s. Kasien.             |
| 31 | Astizken.          | s. Zirizio.            |




AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak llaburtzen dira orenez.




- ☉ a. o. 6<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 9<sup>m</sup>.
- ☽ a. l. 13<sup>n</sup>, arrastiriko 20<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>
- ☿ a. b. 21<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 26<sup>m</sup>.
- ♃ l. l. 29<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 44<sup>m</sup>.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. llaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>.



- ☉ a. o. 5<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- ☽ a. l. 13<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.
- ☿ a. b. 21<sup>n</sup>, eguerdi eta 10<sup>m</sup>.
- ♃ l. l. 28<sup>n</sup>, arrastiriko or. 1 eta 57<sup>m</sup>



1 Ostegun.	DONISANTORE.	1 Neskanegun.	s. Eloë.
2 Ostirale.	Purg. Arimak.	2 <b>Igante.</b>	ABENTUKO 1 <sup>a</sup> .
3 Neskanegun.	s. Ubert.	3 Astelehen.	s. Frantzes Zab.
4 <b>Igante.</b> 23	s. <i>Charles Bor.</i>	4 Asteharte.	sa Barbara.
5 Astelehen.	sa Bertilda.	5 Astizken.	s. Sabas.
6 Asteharte.	s. Leonart.	6 Ostegun.	s. Nikolas.
7 Astizken.	s. Florent.	7 Ostirale.	s. Ambrosi.
8 Ostegun.	4 Martirak.	8 Neskanegun.	A. B. KONZEP.
9 Ostirale.	s. Salv. Sakr.	9 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 2<sup>a</sup>.</i>
10 Neskanegun.	s. Andreu Av.	10 Astelehen.	sa Eulalia.
11 <b>Igante.</b> 24	ELIZEN SAKR.	11 Asteharte.	s. Daniel.
12 Astelehen.	J. Marthine.	12 Astizken.	s. Melkiade
13 Asteharte.	s. Stanizlaz K.	13 Ostegun.	sa Luzia.
14 Astizken.	s. Jusafat.	14 Ostirale.	s. Arzene.
15 Ostegun.	sa Jertruda.	15 Neskanegun.	s. Mismeñ.
16 Ostirale.	s. Edmon.	16 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 3<sup>a</sup>.</i>
17 Neskanegun.	s. Gregori T.	17 Astelehen.	sa Adelaida.
18 <b>Igante.</b> 25	s. <i>Odon.</i>	18 Asteharte.	s. Gazieñ.
19 Astelehen.	sa Elisabet Ong	19 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Urbeñ.
20 Asteharte.	s. Felis, Valesi.	20 Ostegun.	s. Liberat.
21 Astizken.	A. B. Eskentzia	21 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	J. TOMAS, Ap.
22 Ostegun.	sa Zezila.	22 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	s. Flavieñ.
23 Ostirale.	s. Klement.	23 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 4<sup>a</sup>.</i>
24 Neskanegun.	s. Johane Kh.	24 Astelehen.	sa Delphina.
25 <b>Igante.</b> 26.	sa <i>Katalina.</i>	25 Asteharte.	EGUBERRI.
26 Astelehen.	s. Konrad.	26 Astizken.	J. Eztebe.
27 Asteharte.	s. Virjilo.	27 Ostegun.	J. Johane, Eb.
28 Astizken.	s. Maurino.	28 Ostirale.	Haor Inozent.
29 Ostegun.	s. Saturni.	29 Neskanegun.	s. Tomas Kant.
30 Ostirale.	J. ANDREU, Ap.	30 <b>Igante.</b>	s. Manzuet.
		31 Astelehen.	s. Zilbestre.



## OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an.</sup>
UDA hasten da arramaiatzeko	21 <sup>an.</sup>
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 <sup>an.</sup>
NEGIA hasten da abentuko	22 <sup>an.</sup>




## MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6<sup>n.</sup> — ATHAR-  
RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihara-  
menian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE  
GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste  
ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,  
Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26<sup>n.</sup> — GARRUZEN :  
**m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>n.</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian.  
— IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3<sup>n.</sup> *eta*  
aphiril. 15<sup>n.</sup> — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondo-  
ko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN :  
**m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizk<sup>n.</sup>, *eta* abentu 8<sup>n.</sup> —  
ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen  
asteh<sup>n.</sup> — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>n.</sup> ;  
*eta* buruila 8<sup>n.</sup>, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,  
**f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>n.</sup>, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —  
SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk<sup>n.</sup> *eta* urrie-  
tako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





# Edirengia



I. Dona Isidoro, laboraria . . . . .	57
II. Uskara eta Uskal Herria . . . . .	60
III. Gaod en herrian . . . . .	66
IV. Laborantcha :	
1 <sup>o</sup> Uztak 1899 <sup>an</sup> . . . . .	70
2 <sup>o</sup> Ogi azik; ereiteko moule berribat . . . . .	73
V. Istoria eta erasi . . . . .	78

